

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Elkarteek, kirol klubek edo pertsona fisikoek 2024an egiten dituzten gizarte eta kultura ekimenak eta kirol ekimenak finantzatzeko laguntzen deialdia jasotzen duen 2024ko martxoaren 13ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 767481.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/-convocatoria/767481>.

Deialdiaren xedea

2024. urtean gizarte eta kultura arloko zein kirol arloko programak eta jarduerak egiten laguntzea, hain zuzen ere udalerrian egiten direnak edo udalerrarentzat onuragarritzat jotzen direnak eta Udalaren urteko jarduna osatzen dutenak.

Diruz lagundu daitezkeen arloak

1. Gizarte eta kultura sustapena.

— Kultura eta gizarte jardueretarako laguntzak (ekitaldi tradizionalak, aisialdi tailerrak, hitzaldiak eta ziklo monografikoak, baita parte hartzeko beste edozein kultura edo gizarte jarduera edo ekintza ere).

2. Kirol sustapena.

— Kirol jardueretarako laguntzak (lehiaketak, kirol ibilaldiak, txapelketak eta kirolarekin lotutako beste edozein jarduera).

Diruz lagundu ezin diren jarduerak:

Herriko jaietarako laguntzen, hitzarmenen eta abarren bidez dirulaguntza jasotzen duten berrazko jarduerak.

Sexua dela eta zuzenean zein zeharka inor diskriminatzen duten jarduerak.

Otorduen edo elikagaien gastuak, salbu eta produktu horiek zuzenean erabiltzen badira kirol jardueretako anoetarako eta behar bezala justifikatuta badaude.

Ondasun higigarriak edo higiezinak eta bulegoko material suntsikorrak erostea, salbu eta diruz lagundutako jarduera egiteko behar-beharrezkoa den materiala, aldezturik haren beharrraren balorazio teknikoa eginda.

Funtzionamendu gastuak (higiezinen alokairua, langileen nominak, erregaia...).

Onuradunak

1. Irabazteko xederik gabeko elkarteak eta kirol klubak, Euskadiko Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak ezartzen duenaren arabera behar bezala erregistratuta daudenak eta baldintza hauek betetzen dituztenak:

Egoitza udalerrian duten kirol elkarteak eta klubak, programak eta jarduerak udalerrian soilik egiten dituztenak.

Udalerrian kokatuta ez egon arren, udalak ezarritako edo mugakide den jarduera eremu batean gauzatzen diren gizarte, kultura edo kirol programak egiten dituzten kirol elkarte eta klubak, gutxienez tokiko hiru bazkide edo gehiago badituzte.

2. Udalerrian erroldatutako pertsona fisikoak, dirulaguntza ematea zilegi egiten duten jarduerak egiten dituztenak.

3. Nortasun juridikorik izan ez arren, udalerrian hainbat kide erroldatuta dituzten pertsona fisikoen taldeak, dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak edo jarduerak egin ditzaketenak, hain zuzen ere, udalaren jardunaosatzen duten eta udalerrirako herri eta gizarte interesekotzat jotzen diren proiektuak eta jarduerak.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udalbatzak 2024ko martxoaren 13an egindako bilkuran onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntzak honako aurrekontu partida hauen kontura emango dira: 231.481.000 partidatik (erretiratuen elkarteak) 2.625,00 euro; 334.482.000 partidatik (kulturako dirulaguntzak) 1.680,00 euro; 341.482.002 partidatik (kirol jardueretarako dirulaguntzak) 4725,00 euro.

Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 2024ko uztailaren 29an bukatuko da.

Erdoña, 2024ko ekainaren 12a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO